Ordiziako Udala

2022SOPE0001

**2024/1856. DEKRETUA**

**HONAKO HAU IKUSITA:**

**LEHENENGOA:** 2022ko abenduaren 30ean argitaratu ziren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (247 zbk), abenduaren 28ko 20/2021 legeren 6. eta 8. xedapen gehigarriek ahalbidetzen zuten aldi baterako enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuaren baitan, Ordiziako Udalak, onartutako oinarri orokorrak eta espezifikoak.

**BIGARRENA:** Oinarri horien baitan, karrerako funtzionario bihurtzeko probaldi edo praktikaldi epealdia gainditu behar da:

16. Probaldia edo praktika aldia.

16.1. Praktika aldi bat ezarriko da funtzionario lanpostuetarako, eta probaldi bat lan-kontratuko langileen plazetarako, kasu zehatz bakoitzean. Kasu horretan, eta aldi horrek dirauen bitartean, kontratatutako pertsonak edo praktiketako funtzionario izendatutakoak normaltasunez beteko ditu bere zereginak, eta ordainsariak negoziazio kolektiboko indarreko tresnetan ezarritako aurreikuspenen arabera jasotzeko eskubidea izango du. Probaldia edo praktika aldia udal egoitza berean egingo da, Alkatetzak izendatutako karrerako funtzionario edo lan-kontratuko langile finko izango den pertsona baten (edo ebaluazio batzorde baten) tutoretzapean.

16.2. Probaldiaren edo praktika aldiaren iraupena hemen adierazten dena izango da, taldean eta azpitaldean edo eskalan eta azpieskalan sartzeko eskatzen den titulaziorako parekotzat jotzen den lanbide-talde edo -kategoriaren arabera:

***DECRETO Nº 2024/1856***

***A LA VISTA DE :***

***PRIMERO:*** *Que con fecha 30 de diciembre de 2022 se publicaron en el Boletín Oficial de Gipuzkoa nº247, las bases generales y específicas aprobadas por el Ayuntamiento de Ordizia, en el marco del proceso excepcional de consolidación de empleo temporal que posibilitaban las disposiciones adicionales 6ª y 8ª de la Ley 20/2021, de 28 de diciembre.*

***SEGUNDO:*** *El acceso a la condición de funcionario de carrera, en el marco de las citadas bases, requiere la superación de un periodo de prueba o prácticas:*

*16. Periodo de prueba o de prácticas.*

*16.1. Se establecerá un período de prácticas para los puestos de trabajo de personal funcionario y un período de prueba para las plazas de personal laboral, en cada caso concreto. En este supuesto, y durante dicho periodo, la persona contratada o designada como funcionaria en prácticas desempeñará sus funciones con normalidad y tendrá derecho a percibir sus retribuciones conforme a las previsiones establecidas en los instrumentos de negociación colectiva vigentes. El periodo de prueba o prácticas se realizará en la misma sede municipal, bajo la tutela de una persona (o de una comisión de evaluación) que tendrá la condición de funcionario de carrera o laboral fijo designado por la Alcaldía.*

*16.2. La duración del período de prueba o de prácticas será la que se indica a continuación en función del grupo profesional o categoría que se considere equiparable a la titulación exigida para el ingreso en el Grupo y Subgrupo o Escala y Subescala:*

a) A eta B taldea: 6 hilabete
b) C taldea: 3 hilabete
c) Lanbide-taldeak: 3 hilabete

*a) Grupo A y B: 6 meses*
*b) Grupo C: 3 meses*
*c) Grupos profesionales: 3 meses*

16.3. Aldi horretan, tutore izendatuak (edo ebaluazio batzordeak) ahalegina egin beharko du izangaiak prestakuntza praktikoa eskura dezan eta dagozkion funtzioak arian-arian bere gain har ditzan.

*16.3. Durante este periodo, el tutor designado (o la comisión de evaluación) procurará que el candidato adquiera la formación práctica y asuma progresivamente sus funciones.*

16.4. Aldi hori amaitutakoan, tutoreak (edo ebaluazio batzordeak) txostena egingo du, eta bertan berariaz adierazi beharko du izangaiek probaldia edo praktika aldia gainditu duten. Gainditzen dutenak karrerako funtzionario izendatuko dira edo lan-kontratu finkoa formalizatuko dute. Bestela, Udalburutzaren ebazpen arrazoitu bidez ez-gaitzat joko dira, aldez aurreko entzunaldi-izapidearekin, tutorearen (edo ebaluazio-batzordearen) txostena ikusita, eta ondorioz, karrerako funtzionario izendatzeko eta lan-kontratuko langile finko kontratatzeko eskubide guztiak galduko dituzte.

*16.4. Finalizado este periodo, el tutor o tutora (o la comisión de evaluación) elaborará un informe en el que deberá constar expresamente la superación del periodo de prueba o prácticas por parte de los aspirantes. Quienes lo superen serán nombrados funcionarios de carrera o formalizarán un contrato laboral fijo. En otro caso, serán declarados no aptos por resolución motivada de la Presidencia, con trámite de audiencia previa, a la vista del informe del tutor o tutora (o de la comisión de evaluación), con la consiguiente pérdida de todos los derechos para el nombramiento como funcionario o funcionaria de carrera y para la contratación como personal laboral fijo.*

**HIRUGARRENA:** 2024ko azaroaren 6an Ordiziako Udaleko Langileen Batzordeko Lehendakariak, A24/07143 erregistro zenbakiarekin, idatzia aurkezten du honakoa adieraziz: Ordiziako Udalak erabaki dezala abenduaren 28ko 20/2021 legearen 6. eta 8. Xedapen gehigarrietatik eratorritako aldi baterako enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuetako hautagaiek praktikaldiak abenduaren 31an bukatutzat ematea, lanpostua eskuratzen duten izangaiek horrelako lanpostuari atxikitutako plaza batean jardun badute gutxienez praktikaldiaren iraupen bereko epealdian.

***TERCERO:*** *Con fecha 6 de noviembre de 2024, el Presidente de la Junta de Personal del Ayuntamiento de Ordizia, con número de registro A24/07143, presenta escrito en el que manifiesta que el Ayuntamiento de Ordizia acuerda lo dispuesto en los artículos 6 y 8 de la Ley 20/2021, de 28 de diciembre. Declarar finalizado el 31 de diciembre el periodo de prácticas de los aspirantes de los procesos excepcionales de consolidación de empleo temporal derivados de las disposiciones adicionales, siempre y cuando los aspirantes que accedan a un puesto de trabajo hayan desempeñado al menos una plaza adscrita a dicho puesto durante el periodo de prácticas.*

**LAUGARRENA:** Enplegu Publikoaren behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren

***CUARTO:*** *De conformidad con lo regulado en las disposiciones 6 y 8 de la Ley 20/2021, de 28 de diciembre, de medidas urgentes*

28ko 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapenetan arautukakori so eginez, hautaketa jardunbideak amaturik izan behar dira 2024ko abenduaren 31 baino lehen.

*para la reducción de la temporalidad en el empleo público, los procedimientos de selección deberán estar concluidos antes del 31 de diciembre de 2024.*

-Idazkariak 2024/11/25ean egindako txostena ikusirik.

*-Visto el informe de la Secretaria de fecha 25/11/2024 en el cual da su conformidad.*

Arestian adierazitakoa kontuan izanik, idatziarekin batera aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean eta horrekin bat egonik, Tokiko Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikuluak ematen dizkidan eskumenez baliatuta, ondorengoa

*A la vista de lo que antecede, examinada la documentación que la acompaña y de conformidad con la misma en uso de las atribuciones que me están legalmente conferidas en virtud del artículo 21.1 de la Ley 7/1985 Reguladora de las Bases de Régimen Local, por medio de la presente*

**HONAKO HAU ERABAKI DUT:**

***TENGO A BIEN:***

**LEHENENGOA:** 20/2021 Legearen 6 eta 8 xedapen gehigarrietan, abenduaren 28koa, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzkoa, oinarrituriko aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuen izaera salbuespenezkoa dela argi geratzen da.

***PRIMERO:*** *Se pone de manifiesto el carácter excepcional de los procesos de estabilización de empleo temporal basados en las disposiciones adicionales 6 y 8 de la Ley 20/2021, de 28 de diciembre, de medidas urgentes para la reducción de la temporalidad en el empleo público.*

**BIGARRENA:** Konbalidatzea, Ordiziako Udaleko Alkateak, 2022ko abenduaren 16an, 2022/1527 Alkate Dekretu bidez onartu zituen - Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrien egonkortze-prozesuaren bidez bete beharreko lanpostu hutsen oinarriek 16. artikuluan xedatzen duten praktikaldi frogaldia eta honakoak bete beharko direlarik:

- Egonkortze prozesu bereziaren hautaketa jardunbideen ondorioz lortzen den lanpostuaren eta urteetan betetzen ari den lanpostuaren funtzioen identitatea berdina izan beharko da: funtzioetan parekotasuna beharko du izan, aldiz,

***SEGUNDO:*** *Convalidar el periodo de prueba de práctica regulado en las Bases de vacantes a proveer mediante el proceso de estabilización de las Disposiciones Adicionales Sexta y Octava de la Ley 20/2021, de 28 de diciembre, de medidas urgentes para reducir la temporalidad en el empleo público, aprobadas por Decreto de Alcaldía 2022/1527, de 16 de diciembre de 2022, por el Alcalde del Ayuntamiento de Ordizia, establecen en su artículo 16, con sujeción a lo siguiente:*

- *La identidad del puesto que se obtenga como consecuencia de las actuaciones de selección del proceso especial de estabilización deberá ser la misma que la de las funciones del puesto que viene desempeñando durante los años, debiendo existir*

ez da zeregin berdinetan oinarritu behar identitate hori.

*paridad en las funciones, sin embargo, dicha identidad no debe basarse en las mismas tareas.*

- Hautagaiak bitarteko izaeraz betetzen duen lanpostua eta hautaketa jardunbidearen ondorioz izendatua izango den lanpostua bera izan beharko da

- *La plaza desempeñada interinamente por la persona candidata deberá coincidir con la que resulte nombrada como consecuencia del procedimiento selectivo*

- Praktika epealdiaren konbalidazioa sistematik at geratuko dira, beraien izaera berezia dela eta, udaltzainen egonkortzeak. Aintzat izanda praktikaldia Arkautek ahalbidetzen duela, eta eskuduntza eta baldintzak beraiek ezarritako zuzentarauen arabera arautuko dira.

- *Quedan fuera del sistema la convalidación del periodo de práctica, por su especial naturaleza, las estabilizaciones de las policías locales. Teniendo en cuenta que Arkaute posibilita el periodo de prácticas, la competencia y condiciones se regirán por las directrices establecidas por los mismos.*

**HIRUGARRENA:** Ebazpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Ordiziako udaleko webgunean argitaratzea.

***TERCERO:*** *Publicar la presente Resolución en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en la página web del Ayuntamiento de Ordizia.*

| **Sinatzailea**<br>Firmante | **ALKATEAK** ADUR EZENARRO AGIRRE<br>EL ALCALDE |
|---|---|
| | **Dokumentu hau elektronikoki sinatu da, honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo interneteko orrialde honetara:** / Este documento se ha firmado electrónicamente. Para verificar la veracidad de este documento ir a la página de Internet: https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAAQR8TH.8paY |